**2017ko URRIAREN 4ko UDALBATZARRA**
PLENO DE 4 DE OCTUBRE DE 2017

**BERTARATUAK /** ASISTEN**:**

**ALKATEA /** ALCALDE: **JOSU IRATZOKI AGIRRE**

**ZINEGOTZIAK** / CONCEJALES Y CONCEJALAS**:**
**Mª ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO, IXONE TELLECHEA URANGA, MIKEL LERTXUNDI KORTA, AITOR IANTZI GOIENETXE, GERMAN CASTILLO LAZCANOTEGUI, JOSE MIGUEL GORRIA VICUÑA, JOSE ANTONIO OYARZABAL IRIBAS, RAQUEL QUIROGA TAPIA, JUAN LOSA OCARIZ.**

**IDAZKARIA** / SECRETARIA: **PILAR CHUECA INTXUSTA.**

**BERTARATU EZ DIRENAK /** NO ASISTEN:
**AITOR ELEXPURU EGAÑA (lana** / trabajo**), RAQUEL QUIROGA TAPIA (lana** / trabajo**).**

**Tokia: BERAko Herriko Etxea**
**Eguna: 2017-10-04**
**Ordua: 20:00**
**Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia**

Lugar: Casa Consistorial de BERA
Día: 04-10-2017
Hora: 20:00
Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

**TRATATZEKO GAIAK:**

ASUNTOS A TRATAR:

**1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-**

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

**2017.eko irailaren 13an egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.**

Vista el acta de la sesión celebrada el día 13 de septiembre de 2017, por unanimidad SE APRUEBA.

**2.- 2017/08/01EKO OSOKO BILKURAREN ERABAKIA AKATS ZUZENTZEA: A242ko XEHETASUN AZTERLANA (13. P, 242 L.) BEHIN BETIKO ONESTEA:--------------------------.**

***Idazkariak gaia azaldu du eta, aho batez,***

2.- CORRECCIÓN DE ERRORES ACUERDO PLENO 1/08/2017: APROBACIÓN DEFINITIVA ESTUDIO DE DETALLE DE A242 (P. 13, p 242):-----------------------.

*La Secretaria explica el asunto y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

***honako erabakia hartu dute.***

**2017ko abuztuaren 1ean eginiko Osoko bilkuran, besteen artean, A242an, 13. poligonoko 242. lur-zatiko Xehetasun Azterlana, --------------------------------------------k sustatua, behin betiko onestea erabaki zuen Udalak.- Geroztik, erabaki horretan errakuntza materialak zirela ohartu da Udala, Nasuvinsak eginiko txostenen datak gaizki zirela, hain zuzen.**

En el Pleno celebrado el 1 de agosto de 2017, entre otros, se adoptó acuerdo de aprobación definitiva del Estudio de Detalle de la parcela 242 del polígono 13, en la A242, promovido por-------------------------------------------.

Posteriormente, el Ayuntamiento ha detectado errores materiales en dicho acuerdo, equivocación en las fechas de los informes realizados por Nasuvinsa, en concreto.

**Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluari jarraikiz, *"Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunen eskariz, beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".***

De conformidad con el artículo 109.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas *"Las Administraciones Públicas podrán, asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos existentes en sus actos."*

**Hori dela eta, ERABAKI DUTE:**

Por ello, SE ACUERDA:

**1) A242an, 13. poligonoko 242. lur-zatiko Xehetasun Azterlana behin betiko onesteko erabakian, --------------------------------------------k sustatukoan, aurkitutako errakuntza materiala zuzentzea, honako modu honetan:**

1) Rectificar el error material detectado en el acuerdo de aprobación definitiva del Estudio de Detalle de la parcela 242 del polígono 13, en la A242, promovido por-------------------------------------------de la siguiente forma:

**Erraten duenean:**
**Ikusirik, Nasuvinsak eta Idazkaritzak eginiko txostenak, 2017ko martxoaren 29 eta maiatzaren 4koa eta 2017ko maiatzaren 16koa, hurrenez hurren.**

Donde dice:
Vistos informes realizados por Nasuvinsa y Secretaría, de fechas 29 de marzo y 4 de mayo de 2017 y 16 de mayo de 2017, respectivamente.

**Erran behar du:**
**Ikusirik, Nasuvinsak eta Idazkaritzak eginiko txostenak, 2017ko martxoaren 30 eta maiatzaren 10ekoa eta 2017ko maiatzaren 16koa, hurrenez hurren.**

Debe decir:
Vistos informes realizados por Nasuvinsa y Secretaría, de fechas 30 de marzo y 10 de mayo de 2017 y 16 de mayo de 2017, respectivamente.

**2) Erabaki hau interesatuei eta Nafarroako Gobernuko Lurralde eta Paisaia Zerbitzuari jakinaraztea, behar diren ondorioetarako.**

2) Notificar este acuerdo a las partes interesadas y trasladar al Servicio de Territorio y Paisaje del Gobierno de Navarra, a los efectos oportunos.

**3.- 6. SEKTOREKO UE2ko XEHETASUN**

3.- APROBACIÓN DEFINITIVA ESTUDIO

**AZTERLANA (11. P, 14. L; MATZADA ZONALDEA) BEHIN BETIKO ONESTEA:--------------------.**

*Idazkariak espedientea eta prozedura azaldu du. Horren ondotik, aho batez, honako erabaki hau hartu dute:*

**Ikusirik, 6. Sektoreko UE2an (11. poligonoko 14. lurzatia: Matzada zonaldea) Xehetasun Azterlanaren espedientea,--------------------k sustatua.-**
**Dokumentazioa: Xehetasun Azterlana----- -------------------------arkitektoak egina, 2016ko abendukoa eta 2017ko maiatzakoa.**

**Ikusirik, Nasuvinsak 2017ko apirilaren 19an eta ekainaren 14an eginiko txostenak eta Idazkaritzak, 2017ko uztailaren 11koa.**

**2017ko uztailaren 26an Tokiko Gobernu Batzordeak Xehetasun Azterlan honi hasierako onespena eman zion.**

**Izanik, jendaurreko epean ez dela alegaziorik aurkeztu.**

**1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 63., 72. eta 74. artikuluekin bat etorriz, -Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen Foru Dekretua da hori-.**

**ERABAKI DUTE:**

**1) --------------------k sustatutako 6. Sektoreko UE2an (11. poligonoko 14. lurzatia: Matzada zonaldea) Xehetasun Azterlana behin betikoz onestea.**

**2) Behin-betiko onespen hau bai eta haien barreneko hirigintza arauak ere Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.**

DE DETALLE UE2 DEL SECTOR 6., (P. 11, p. 14; ZONA MATZADA):--------------------.

*La Secretaria explica el expediente y procedimiento. Tras ello, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Visto expediente del Estudio de Detalle en la UE2 del Sector 6 (parcela 14 del polígono 11; zona Matzada), promovido por--------------------.

Documentación: Estudio de Detalle redactado por el arquitecto--------------------------de fechas diciembre de 2016 y mayo de 2017.

Vistos informes realizados por Nasuvinsa el 19 de abril y 14 de junio de 2017 y por Secretaría el 11 de julio de 2017.

En fecha 26 de julio de 2017 la Junta de Gobierno Local aprobó inicialmente este estudio de detalle.

Siendo que no se ha presentado ninguna alegación en el plazo de exposición pública.

De acuerdo con lo establecido en los artículos 63, 72 y 74 del Decreto Foral Legislativo 1/2017 (Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo).

SE ACUERDA:

1) Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle en la UE2 del Sector 6 (parcela 14 del polígono 11; zona Matzada), promovido por--------------------.

2) Publicar en el Boletín Oficial de Navarra esta aprobación definitiva, así como las normas urbanísticas contenidas en ella.

**3) Erabaki hau nahiz onartutako Xehetasun Azterlana honen ale bat eta emandako txosten teknikoak Nafarroako Gobernuko Lurralde eta Paisaia Zerbitzuari bidaltzea, hamar eguneko epean gehienez ere.**

3) Trasladar este acuerdo junto con un ejemplar del Estudio de Detalle aprobado e informes técnicos emitidos al Servicio de Territorio y Paisaje del Gobierno de Navarra, en el plazo máximo de 10 días.

**4) Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.**

4) Notificar este acuerdo al interesado.

**4.- 9. POLIGONOKO 251. LURZATIAN HIRI-JARDUKETAKO PLAN BEREZIA (BIDASOA 49), BERAKO UDAL PLAN OROKORRA ALDATZEN DUENA, BEHIN BETIKO ONESTEA.**

4.- APROBACIÓN DEFINITIVA PLAN ESPECIAL DE ACTUACIÓN URBANA (BIDASOA 49), PARCELA 251, POLÍGONO 9, MODIFICACIÓN DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL DE BERA.

***Idazkariak espedientea eta prozedura azaldu ondotik, aho batez, honako erabaki hau hartu dute:***

*Tras explicar la Secretaria el expediente y el procedimiento, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, 9. poligonoko 251. lur-zatian (Bidasoa karrika 49) Hiri-Jarduketako Plan Bereziaren espedientea, Berako Udal Plan Orokorraren aldaketa xehakatua egiten duena, --------------------------------sustatua.**

Visto expediente del Plan Especial de Actuación Urbana en la parcela 251 del polígono 9 (Bidasoa karrika 49), modificación pormenorizada del Plan General Municipal de Bera, promovido por ------------------------------.

**Dokumentazioa: Aldaketa. Hiri-jarduketako Plan Berezia. Antolamendu xehakatua. Lursaila 251, Poligonoa 9. Bera (Nafarroa), ------------------------------------ arkitektoek egina, 2017ko uztailekoa.**

Documentación: Modificación. Plan Especial de Actuación Urbana. Ordenación pormenorizada. Parcela 251, polígono 9. Bera (Nafarroa), redactado por los arquitectos ---------------------, y la arquitecta ---------- de fecha julio de 2017.

**Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 7. artikuluak (1/2017 LFDaren 7. artikulua, orain) ezarritako Herritarren parte hartzea egin ondotik.**

Realizado el Plan de participación ciudadana establecido en el artículo 7 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo (actual artículo 7 del DFL 1/2017).

**2017ko uztailaren 26ean Tokiko Gobernu Batzordeak espediente hau hasiera batez onartu zuen.**

Con fecha 26 de julio de 2017 la Junta de Gobierno Local aprobó inicialmente este expediente.

**Jendaurreko epean ez dute alegaziorik aurkeztu.**

En el plazo de exposición pública no se ha presentado alegación alguna.

**Ikusirik, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea-**

Visto informe de Nasuvinsa de 10 de mayo de 2017 emitido de conformidad con el artículo 74.2 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación

**ren 74.2. (orain, 1/2017 LFDaren 72.3.) artikuluari jarraikiz Nasuvinsak eginiko txostena, 2017ko maiatzaren 10ekoa.**

**Ikusirik, Idazkaritzak 2017ko uztailaren 12an egindako txostena.**

**1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 77.3. eta 6., 72. eta 79.1. artikuluekin bat etorriz, (Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina).**

**ERABAKI DUTE:**

**1) 9. poligonoko 251. lur-zatian (Bidasoa karrika 49) Hiri-Jarduketako Plan Bereziaren espedientea, Berako Udal Plan Orokorraren aldaketa xehakatua egiten duena, --------------------------------sustatua, behin betiko onestea.**

**2) Behin betiko onespen hau bai eta haien barreneko hirigintza arauak ere Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.**

**3) Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.**

**4) Erabaki hau nahiz onartutako Udal Hiri-Jarduketako Plan Berezi honen ale bat eta emandako txosten teknikoak Nafarroako Gobernuko Lurralde eta Paisaia Zerbitzuari bidaltzea, hamar eguneko epean gehienez ere.**

del Territorio y Urbanismo, (actual 72.3 del DFL 1/2017).

Visto informe de Secretaría de 12 de julio de 2017.

De acuerdo con lo establecido en los artículos 77.3 y 6, 72 y 79.1 del Decreto Foral Legislativo 1/2017 (Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo).

SE ACUERDA:

1) Aprobar definitivamente el Plan Especial de Actuación Urbana en la parcela 251 del polígono 9 (Bidasoa karrika 49), modificación pormenorizada del Plan General Municipal de Bera, promovido por -------------------------------.

2) Publicar en el Boletín Oficial de Navarra esta aprobación definitiva, así como las normas urbanísticas contenidas en ella.

3) Notificar este acuerdo a la parte interesada.

4) Trasladar este acuerdo junto con un ejemplar de la modificación aprobada e informes técnicos emitidos al Servicio de Territorio y Paisaje del Gobierno de Navarra, en el plazo máximo de 10 días.

**5.- A291 ETA A292 JARDUKETA ASISTEMATIKOETAN (3. P, 291. eta 292. L; SAN ESTEBAN 2) HIRI-JARDUKETAKO PLAN BEREZIA BERAKO UDAL PLAN OROKORRA ALDATZEN DUENA, BEHIN BETIKO ONESTEA.**

***Idazkariak espedientea eta prozedura azaldu-ta, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

5.- APROBACIÓN DEFINTIVA PLAN ESPECIAL DE ACTUACIÓN URBANA, ACTUACIONES ASISTEMATICAS A291 Y A292 (P. 3, p. 291 y 292; SAN ESTEBAN 2), MODIFICACIÓN DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL DE BERA.

*Explicado el expediente y procedimiento por la Secretaria, por unanimidad, adoptan el si-*

*guiente acuerdo:*

**Ikusirik, A291 eta A292 Jarduketa Asistematikoetan (3. poligonoko 291. eta 292. lur-zatiak; San Esteban karrika 2) Hiri-Jarduketako Plan Bereziaren espedientea, Berako Udal Plan Orokorra aldatzen duena, PROMOCIONES TABLAJEROBAITA SL-k sustatua.**

Visto expediente del Plan Especial de Actuación Urbana en las Actuaciones Asistemáticas A291 y A292 (parcelas 291 y 292 del polígono 3; San Esteban karrika 2), modificación del Plan General Municipal de Bera, promovido por PROMOCIONES TABLAJEROBAITA SL.

**Dokumentazioa: Plan Especial Actuación Urbana A291/A292, parcela 291/292, polígono 3, Bera Bidasoa, -------------------- arkitektoak egina, 2017ko apirilaren 24an.**

Documentación: Plan Especial de Actuación Urbana, A291/A292, parcela 291/292, polígono 3, Bera Bidasoa, redactado por el arquitecto --------------------, de fecha 24 de abril de 2017.

**Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 7. artikuluak (1/2017 LFDaren 7. artikulua, orain) ezarritako Herritarren parte hartzea egin ondotik.**

Realizado el Plan de participación ciudadana establecido en el artículo 7 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo (actual artículo 7 del DFL 1/2017).

**2017ko uztailaren 26an Gobernu Batzordeak espediente hau hasiera batez onartu zuen.**

Con fecha 26 de julio de 2017 la Junta de Gobierno Local aprobó inicialmente este expediente.

**Jendaurreko epean ez dute alegaziorik aurkeztu.**

En el plazo de exposición pública no se ha presentado alegación alguna.

**Nafarroako Gobernuaren Ondare Historikoaren Zerbitzuak 2017ko irailaren 1ean honi buruz eginiko txostenean baldintza batzuk ezarri ditu izapidetzen ari den aldaketarako.**

El Servicio de Patrimonio Histórico del Gobierno de Navarra en informe al respecto de fecha 1 de septiembre de 2017 establece diversas condiciones para la modificación en trámite.

**Ikusirik, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 74.2. (orain, 1/2017 LFDaren 72.3.) artikuluari jarraikiz Nasuvinsak eginiko txostenak 2017ko otsailaren 23koa, ekainaren 8koa eta irailaren 21ekoa.**

Vistos informes de Nasuvinsa de 23 de febrero, 8 de junio y 21 de septiembre de 2017 emitidos de conformidad con el artículo 74.2 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo, (actual 72.3 del DFL 1/2017).

**Ikusirik, Idazkaritzak 2017ko uztailaren 11n egindako txostena.**

Visto informe de Secretaría de 11 de julio de 2017.

**1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 77.3. eta 6., 72. eta 79.1. artikuluekin bat etorriz, (Lurraldearen Antolamenduari eta**

De acuerdo con lo establecido en los artículos 77.3 y 6, 72 y 79.1 del Decreto Foral Legislativo 1/2017 (Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo).

**Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina).**

**ERABAKI DUTE:**

**1) A291 eta A292 Jarduketa Asistematikoetan (3. poligonoko 291. eta 292. lurzatiak; San Esteban karrika 2) Hiri-Jarduketako Plan Berezia, Berako Udal Plan Orokorra aldatzen duena, PROMOCIONES TABLAJEROBAITA SL-k sustatua eta lehen adierazitakoa, behin betiko onestea, honako oharren arabera:**

**1.1) 2017ko irailaren 1ean Nafarroako Gobernuaren Ondare Historikoaren Zerbitzuak eginiko txostenean jarritako oharrak orain onartzen den arautegian sartu behar ditu. Txosten horren kopia erabaki honekin batera jakinaraziko zaio.**

**1.2) Orain onartutako hirigintza arautegia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ahal izateko, hilabete bateko epean, testu bategina aurkeztu beharko du non behin betiko onespen honen arauak eta ohar guztiak sartuko diren.**

**2) Behin betiko onespen hau bai, eta haien barreneko hirigintza arauak ere, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.**

**3) Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.**

**4) Erabaki hau nahiz onartutako Udal Hiri-Jarduketako Plan Berezi honen ale bat eta emandako txosten teknikoak Nafarroako Gobernuko Lurralde eta Paisaia Zerbitzuari bidaltzea, hamar eguneko epean gehienez ere.**

SE ACUERDA:

1) Aprobar definitivamente el Plan Especial de Actuación Urbana en las Actuaciones Asistemáticas A291 y A292 (parcelas 291 y 292 del polígono 3; San Esteban karrika 2), modificación del Plan General Municipal de Bera, promovido por PROMOCIONES TABLAJEROBAITA SL, antes reseñado, según las siguientes condiciones:

1.1) Deberá incluir en la normativa aprobada las indicaciones establecidas en el informe del Servicio de Patrimonio Histórico del Gobierno de Navarra de fecha 1 de septiembre de 2017, cuya copia se notifica con este acuerdo.

1.2) Para la publicación en el Boletín Oficial de Navarra de las normas urbanísticas aprobadas deberá presentar en este Ayuntamiento, en el plazo de 1 mes, un texto refundido que recoja todas las determinaciones de esta aprobación definitiva.

2) Publicar en el Boletín Oficial de Navarra esta aprobación definitiva, así como las normas urbanísticas contenidas en ella.

3) Notificar este acuerdo a la parte interesada.

4) Trasladar este acuerdo junto con un ejemplar de la modificación aprobada e informes técnicos emitidos al Servicio de Territorio y Paisaje del Gobierno de Navarra, en el plazo máximo de 10 días.

**6.- “N-121-A INTERKONEXIORAKO KANALIZAZIOAK. BERA” IZENEKO PROIEKTUA, “BELAUNALDI BERRIKO**

6.- APROBACIÓN PROYECTO DE OBRAS DE “CANALIZACIONES PARA INTERCONEXION N-121-A. BERA” PARA LA EJE-

**BANDA ZABALERAKO SARBIDE SAREAK HEDATZEKO AZPIEGITURA PASIBOEN ARLOKO INBERTSIOEN PROGRAMAREN" BARRENEAN DAGOENA, "BERAKO ADARRARI" DAGOKIONA, ETA INBERTSIO HONEN FINANTZA PLANA ONESTEA.**

*Idazkariak aipatu du Nasertic-ekin hitzarmena oraindik sinatu ez bada ere, proiektua bai aurkeztu dutela PILeko dirulaguntza eskatu ahal izateko, baita ere prozedura azaldu egin du.*

*Alkateak adierazi du nola dagoen gaia eta proiektuaren edukia. Horren ondoren, aho batez, honako erabaki hau hartu dute:*

**Uztailaren 13ko 306/2017 Toki Administrazio Zuzendari Nagusiak emandako Ebazpenaren bidez, 2017-2019 aldirako Toki inbertsioen Planean, "Belaunaldi berriko banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko azpiegitura pasiboen arloko inbertsioaren programaren" barrenean Berako Udalari dagokion "Berako adarra" izeneko inbertsioa, besteen artean, onetsi zuen.**

**Aipatu 306/2017 Toki Administrazio Zuzendari Nagusiaren Ebazpenaren 4. puntuari jarraikiz, 2017rako eta 2018rako inbertsioak jasotzen dituen toki entitateek, ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta lau hilabeteko epean, abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen IV. Eranskineko 4. atalean adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute. 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen du Foru Lege horrek.**

**18/2016 Foru Legearen IV. eranskineko 4. atalean adierazitako dokumentazioa, bai inbertsioaren exekuzio proiektua zein inbertsio horren finantza plana Osoko bilkurak onetsi behar ditu.**

**Aipatu inbertsioa finantzatzeko, Toki In-**

CUCIÓN DE LA INVERSION "RAMAL DE BERA" DENTRO DEL PROGRAMA DE INVERSIONES EN INFRAESTRUCTURAS PASIVAS DESTINADAS AL DESPLIEGUE DE REDES DE ACCESO DE BANDA ANCHA DE NUEVA GENERACION (NGA) Y DEL PLAN FINANCIERO DE LA CITADA INVERSIÓN.

*La Secretaria informa que, aunque todavía no se ha firmado el convenio con Nasertic, sí que han presentado el proyecto para la solicitud de la subvención dentro del PIL, igualmente, explica el procedimiento.*

*El Alcalde explica el asunto como va y el contenido del proyecto. Tras lo cual, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Por Resolución 306/2017, de 13 de julio, del Director General de Administración Local se aprobó, entre otras, la inversión financiable en el Plan de Inversiones Locales 2017-2019, denominada "Ramal de Bera" dentro del apartado de Programas de Inversiones en infraestructuras pasivas destinadas al despliegue de redes de acceso de banda ancha de nueva generación (NGA).

De conformidad con el punto 4º de la citada Resolución 306/2017 del Director General de Administración Local, las entidades locales con inversiones en el 2017 y 2018, deberán presentar en el plazo de cuatro meses a partir de la publicación en el Boletín Oficial de Navarra de la presente Resolución, la documentación señalada en el número 4 del Anexo IV de la Ley Foral 18/2016, de 13 de diciembre, reguladora del Plan de Inversiones Locales 2017-2019.

La documentación señalada en el número 4 del Anexo IV de la Ley Foral 18/2016, tanto el proyecto de ejecución como el plan financiero, debe ser aprobada por el Pleno.

Para la financiación de la inversión señalada se

**bertsioen Planari dagokion diru-ekarpenaz gain Diruzaintzako Gerakinetik 16.260,39 eurotako diru-ekarpena egin behar da zeina Osoko bilkurak inbertsio honi lotu behar dion.**

contempla, además de la aportación correspondiente del Plan de Inversiones Locales, la cantidad de 16.260,39 euros a aportar del Remanente de Tesorería, cantidad que debe ser afectada a esta inversión por el Pleno.

**Hori dela eta, aurrekoa ikusirik ERABAKI DUTE:**

Teniendo en cuenta lo anterior, SE ACUERDA:

**1) "Belaunaldi berriko banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko azpiegitura pasiboen arloko inbertsioaren programaren" barrenean Berako Udalari dagokion "Berako adarra" izeneko inbertsioaren proiektua, "N-121-A interkonexiorako kanalizazioak. Bera", Miren Otazu Valenciak, Bide, Ubide eta Puertotako Ingeniariak egina, 2017ko uztailekoa, onestea.**

1) Aprobar el proyecto de obras "Canalizaciones para interconexión N-121-A. Bera" para la ejecución de las obras de la inversión denominada "Ramal de Bera" dentro del Programa de Inversiones en infraestructuras pasivas destinadas al despliegue de redes de acceso de banda ancha de nueva generación (NGA)", redactado por la ingeniera de Caminos, Canales y Puertos Miren Otazu Valencia, de fecha julio de 2017.

**2) Lehen aipatu inbertsioa finantzatzeko Diruzaintzako Gerakinetik 16.260,39 eurotako diru-ekarpena lotzea**

2) Afectar la cantidad de 16.260,39 euros del Remanente de Tesorería para la financiación de la inversión ants reseñada.

**3) Inbertsio honetarako 2017ko irailaren 28ko finantza plana, espedientean dagoena, onestea.**

3) Aprobar el plan financiero de esta inversión de fecha 28 de septiembre de 2017, obrante en el expediente.

**4) Erabaki hau eta orain onetsi den dokumentazioarekin batera Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuaren Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiari bidaltzea, behar diren ondorioetarako.**

4) Remitir este acuerdo junto con la documentación ahora aprobada a la Dirección General de Administración Local del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra, a los efectos oportunos.

**7.- UDAL ZERGEN KARGA/TASAK HASIERA BATEZ ONESTEA, 2018.eko EKITALDIA.**

7.- APROBACIÓN INICIAL TIPOS IMPOSITIVOS IMPUESTOS MUNICIPALES, EJERCICIO 2018.

***Adierazpenak:***

*Intervenciones:*

***Jose M. Gorria zinegotziak:***
***Aurkako botoa eman behar du ez zaiolako***

*El concejal José M. Gorria:*
*Va a votar en contra porque no le parece bien*

***ongi iruditzen orain dela gutti kontribuzioko baloreak igo eta, orain, berriro igotzea.***

*que hace poco se subieron los valores y, ahora, de nuevo se suban.*

***Josu Iratzoki Alkateak:***
***Ponentzia berrian aldaketa handiena Larunen eta Ibardinen da, aurreko egin zenean hortxe salmentako baloreak ez zirelako, eta, orain, bai badira.***

*Jose Iratzoki Aguirre, Alcalde:*
*En la nueva ponencia la mayor modificación es en Larun e Ibardin, cuando se hizo la anterior no había valores de compra-venta ahí y, ahora, sí los hay.*

***Eztabaida ondotik, Idazkariak, indarrean dagoen arautegiaren berri eman die espedientean dagoen txostena azaldurik.***

*Tras la deliberación, la Secretaria informa de la nueva normativa explicando el informe que consta en el expediente.*

***Horren ondotik, bozketa egin dute, honako emaitza izanik:***

*Tras ello, se realiza la votación, resultando lo siguiente:*

***Aldeko botoak: 8 (5 EH Bildu, 2 Herrirako eta 1 UPN)***
***Aurkako botoak: 1 (Herrirako)***
***Abstenzioak: 0.***

*Votos a favor: 8 (5 EH Bildu, 2 Herrirako y 1 UPN)*
*Votos en contra: 1 (Herrirako)*
*Abstenciones: 0.*

**Ikusirik, 2018.eko Udal zergen karga-tasak aldatzeko espedientea.**

Visto, expediente de modificación de los tipos impositivos para el año 2018.

**Izanik, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 64. artikuluaren arabera Udal zergen karga-tasak aldatzea ondorioak izan behar den urtea hasi baino lehen onetsi behar dela.**

Siendo que según el artículo 64 de la Ley Foral 2/1995 sobre Haciendas Locales de Navarra, las modificaciones de los tipos impositivos de los impuestos municipales deben ser aprobados antes del inicio del año en que hayan de surtir efecto.

**Kontuan hartuz, Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluak eta Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 13. artikuluak xedatzen dutena.**

Teniendo en cuenta lo establecido en el artículo 325 de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local y en el artículo 13 de la Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales.

**ERABAKI DUTE:**

SE ACUERDA:

1) **2018. urterako orain izapidetzen ari den Balorazio Ponentzia indarrean jarriko balitz, Lurraldeko kontribuzioari % 0,235ko karga-tasa ezartzea.**
   **Bestela, Lurraldeko kontribuzioari % 0,28ko karga-tasa ezartzea (aurtengo berdina mantenduko da).**

1) Si la revisión de la Ponencia de Valoración actualmente en trámite entra en vigor para el ejercicio 2018, establecer el tipo impositivo del 0,235a la Contribución Territorial.
   En caso contrario, establecer el tipo impositivo del 0,28 a la Contribución Territorial (se mantiene el mismo actual).

**2) Izaera urbanoko terrenoen balio gehikuntzaren gaineko zerga:**
**Gehikuntza errealaren zenbatekoa finkatzeko Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 175. artikuluaren laukian agertzen diren gutxienen urteko portzentajeak aplikatzea. Karga-tasa % 18a izanen da (aurtengo berdina).**

2) Impuesto sobre el incremento de los terrenos de naturaleza urbana:
Para determinar el importe del incremento real se aplicarán los porcentajes anuales mínimos del cuadro del artículo 175 de la Ley Foral de Haciendas Locales.
El tipo impositivo será el 18 % (el mismo actual).

**3) Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergari % 5eko karga-tasa ezartzea (aurtengo berdina).**

3) Establecer el tipo impositivo del 5% al Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (el mismo actual).

**4) Iharduera Ekonomikoen gaineko Zerga: 1,3 gutxieneko indizea aplikatzea (aurtengo berdina).**

4) Impuesto de Actividades Económicas:
Aplicar el índice mínimo de 1,3 (el mismo actual).

**5) Karga-tasa hauek jendaurrean paratzea 30 egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu eta gero, herritarrek eta bidezko interesa dutenek denbora horretan espedientea aztertzeko aukera izan dezaten.**

5) Exponer al público dichos tipos impositivos, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos/as e interesados/as legítimos/as puedan examinar el expediente.

**6) Erreklamaziorik, aitzakiarik edota oharrik egiten ez bada, aipatu denbora pasatu ondotik, aipatu karga-tasak behin betikoz onetsi direla ulertuko da. Kasu honetan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hau, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.**

6) Si no hubiera reclamaciones, reparos y observaciones, una vez transcurrido el plazo indicado en el punto anterior, los tipos impositivos citados se entenderán aprobados definitivamente. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se publicará esta circunstancia, junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.

**8.- TASAK ETA PREZIO PUBLIKOEN TARIFAK ALDATZEKO HASIERA BATEZ ONESTEA, 2018.ko EKITALDIA.**

8.- APROBACIÓN INICIAL MODIFICACIÓN TARIFAS TASAS Y PRECIOS PÚBLICOS, EJERCICIO 2018.-

***Idazkariak, honetan ere, txostenaren azalpena eman eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*En este asunto, igualmente, la Secretaria explica el informe del expediente y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, 2018.ko Tasak eta Prezio Publikoen tarifak aldatzeko espedientea.**

Visto expediente de modificación de las tarifas de las Tasas y Precios Públicos para 2018.

**Kontuan hartuz, Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluak eta Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 13. artikuluak xedatzen dutena.**

Teniendo en cuenta lo establecido en el artículo 325 de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local y en el artículo 13 de la Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales.

**ERABAKI DUTE:**

SE ACUERDA:

**1) 2018. ekitaldirako honako prezio publiko eta Tasa hauen tarifak, espedientean daudenak, hasiera batez aldatzeko onartzea (%1,8ko igoera, Nafarroako 2016ko PKari jarraikiz:**

**- Bide publikoko lurpea, hegalkina eta lurzoruaren aprobetxamendu berezien-gatiko tasak.**
**- Agiriak tramitatu eta luzatzeagatiko tasak.**
**- Udal kirol Instalazioak erabiltzeagatiko tasak.**
**- Irekitze baimenarengatiko tasak.**
**- Animalia arriskutsuak eta bestelakoak edukitzeagatiko tasak.**
**- Musika Eskolako tasak.**
**- Saneamendu eta ur hornidurarengatiko tasak.**
**- Trafiko isunak.**

1) Aprobar inicialmente la modificación de las tarifas de las siguientes Tasas y Precios Públicos para el ejercicio de 2018, según constan en el expediente (subida de 1,8 %, de acuerdo con el IPC de Navarra en 2016):

- Tasas por aprovechamientos especiales del suelo, vuelo y subsuelo de la vía pública.
- Tasas por tramitación y expedición de documentos.
- Tasas por utilización de Instalaciones Deportivas Municipales.
- Tasas por licencia de apertura.
- Tasas por tenencia de animales potencialmente peligrosos.
- Tasas de la Escuela de Música.
- Tasas de abastecimiento de agua y saneamiento.
- Infracciones de tráfico.

**2) Tarifa hauek jendaurrean paratzea 30 egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu eta gero, herritarrek eta bidezko interesa dutenek denbora horretan espedientea aztertzeko aukera izan dezaten.**

2) Exponer al público dichas tarifas, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos/as e interesados/as legítimos/as puedan examinar el expediente.

**3) Erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten ez bada lehen aipatutako epean, hasierako onespen hau behin betiko bilakatuko da. Kasu honetan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hau, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.**

3) Si no hubiera reclamaciones, reparos y observaciones en el plazo indicado en el punto anterior el acuerdo de aprobación inicial pasará a definitivo. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se publicará esta circunstancia, junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.

**4) Behin betiko onespenaren ondoren, Nafarroako Gobernuaren Ordenantza Fiskalaren Erregistrora aldaketa hauek bidaltzea.**

4) Una vez realizada la aprobación definitiva, remitir estas modificaciones al Registro de Ordenanzas Fiscales del Gobierno de Navarra.

**9.- "KATALUNIAREKIN BAT, DEMOKRAZIOAREN BAT" MOZIOA.**

9.- MOCION "CON CATALUÑA, CON LA DEMOCRACIA".

***Alkateak mozioaren testua irakurri du eta, ondotik, adierazpen batzuk izan dira.***

*El Alcalde lee el texto de la moción, y seguidamente, se producen diversas intervenciones.*

***German Castillok abstenituko dela adierazi du.***

*Germán Castillo anuncia su abstención.*

***Jose A. Oyarzabalek eta Jose M. Gorriak alde.***

*José A. Oyarzabal y José M. Gorria su voto a favor.*

***Jose. A. Oyarzabalek:***
***Ados dago baina pena izan da nola bukatu den gaia, bi aldeengatik, estropeatu egin da.***

*José A. Oyarzabal explica:*
*Está a favor pero le da pena cómo ha terminado el tema, por las dos partes, se ha estropeado.*

***Juan Losak:***
***Aurka dago. Estatu demokratiko batean hori Kongresuan tratatu behar da, Kataluinakoa denentzat nahi du.***
***Erreferendumean gastatutakoa diru publikoarekin finantzatzen dute, independentistak dira (Puigdemont, Joseba Alvarez…..) baina Espainan kobratzen dute. Politikan sartzen denak legeria errespetatu behar du.***

*Juan Losa:*
*Está en contra. En un estado democrático eso se trata en el Congreso, lo de Cataluña quiere para todos.*
*Lo que gastan en el referendum se financia con dinero público, son independentistas (Puigdemont, Joseba Alvarez....) pero cobran de España. El que entra en política tiene que respetar las leyes.*

***Josu Iratzoki, Alkateak:***
***Espaina kiebran dago PParen korruptzioarengatik, Espainako zuloa denen artean ordaintzen ari gara.***

*Jose Iratzoki, Alcalde:*
*España está en quiebra por la corrupción del PP, el agujero de España se está pagando entre todos.*

***Horren ondotik, bozketa egin dute eta hona emaitza:***

***- Aldeko botoak: 7 (5 EH Bildu, 2 Herrirako).***
***- Aurkako botoak: 1 (UPN).***
***- Abstenzioak: 1 (Herrirako).***

*Tras las intervenciones, se realiza la votación con el siguiente resultado:*

*- Votos a favor: 7 (5 EH Bildu y 2 Herrirako).*
*- Votos en contra: 1 (UPN).*
*- Abstenciones: 1 (Herrirako).*

***Beraz, mozioa onartu dute, eta hona hemen testu osoa:***

*Por lo que aprueban la moción, siendo el texto el siguiente:*

**Urte luzeetako prozesu baten baitan eta herritarren gehiengo baten eskariari ateak irekiz, etorkizuna libreki erabakitzeko bitarteko demokratikoz hornitu du Kataluniako herriak bere bidea. Kataluniako instituzio nagusiek herritarren nahiei bide emateko erabaki irmoa hartu dute.**

En el marco de un proceso de largos años, y abriendo las puertas a la demanda de una mayoría de la ciudadanía, el pueblo de Cataluña se ha dotado de recursos democráticos para poder decidir libremente su futuro. La principales instituciones de Cataluña han decidido firmemente dar paso a la voluntad de la ciudadanía.

**Katalunian herritarren borondatearen eskutik eman diren urratsek, Madrilen aldetik indarraren, mespretxuaren eta zaharkitutako legeen ustezko arrazoiarekin erantzun da.**

Los pasos que se han dado en Cataluña con el apoyo de la voluntad de la ciudadanía, han sido contrarrestados desde Madrid con la supuesta razón de la fuerza, del desprecio y de leyes obsoletas.

**Bide demokratikoen aurkako eraso larri honen aurrean, BERAko Udalak honako mozio hau eztabaidatu eta onartzen du:**

Ante este grave ataque contra las vías democráticas, el Ayuntamiento de BERA debate y aprueba la siguiente moción:

**1.- Udal honek, zilegitasun osoa aitortzen dio Kataluniako Parlamentuak egingo duen autodeterminazio erreferendumari. Izan ere, libreki adierazitako herritarron borondatea da tresna politikorik eraginkorrena edozein herri edo kolektiboren etorkizuna eraikitzeko.**

1.- Este Ayuntamiento reconoce la total legitimidad del referéndum que el Parlamento de Cataluña desea llevar a cabo. Y es que la voluntad de la ciudadanía libremente expresada constituye el instrumento político más eficaz para la construcción del futuro de cualquier pueblo o colectivo.

**2.- Udal honek, Kataluniar herriaren eta Parlamentaren erabaki burujabeen aurka Espainiar estatutik buruturiko erasoak salatu eta arbuiatzen ditu. Madrilgo Gobernua, epaitegiak eta Auzitegi Konstituzionala ezin direlako Kataluniako herritarren gehiengo zabalak adierazitako borondate demokratikoaren gainetik jarri.**

2.- Este Ayuntamiento denuncia y rechaza el ataque del estado español contra las decisiones soberanas del pueblo de Cataluña y del Parlament. Porque el Gobierno de Madrid, los tribunales y el Tribunal Constitucional no pueden estar por encima de la voluntad democrática expresada por una amplia mayoría de la ciudadanía de Cataluña.

**3.- Modu demokratikoan aukeratuak izan diren Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu. Demokrazia praktikan jartzea ahalbidetu nahi duten alkateak inputatzea deitoratzen du.**

3.- Rechazamos rotundamente llamar a declarar a alcaldes democraticamente elegidos por los ciudadanos de Cataluña. Nos oponemos a la imputación de los alcaldes catalanes que quieren poner en práctica un derecho democrático.

**4.- Udal honek, Euskal Herria, Katalunia edo munduko gainerako herrietan, herri-**

4.- Este Ayuntamiento se compromete a apoyar los procesos políticos que se desarrollen

**tarren borondate askean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politikoen alde egiteko konpromisoa hartzen du.**

**5.- Udal honek urriaren bateko emaitza errespetatzen du eta Instituzio zein eragileei ere berdina egitea eskatzen die. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlamenteko Lehendakariari, Madrilgo Gobernuko Presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko Presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakinaraziko zaie erabaki honen berri.**

basados en la libre voluntad de sus ciudadanos en Euskal Herria, en Cataluña o en los demás pueblos del mundo.

5.- Este Ayuntamiento respeta y pide respetar los resultados de referendum del 1 de octubre a las distintas instituciones y organismos. Para ello, se resuelve dar cuenta de esta resolución a la Presidenta del Parlament de Cataluña, al Presidente del Gobierno de España y al Presidente del Tribunal Constitucional, así como a la ciudadanía de nuestro municipio.

**10.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-**

**Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:**

**1) Bandoak: B18/2017tik B20/2017era.**

**2) Ebazpenak: 2017ko irailaren 11ko 164. ebazpenetik 2017ko irailaren 27ko 180.e-ra arte.**

10.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

1) Bandos: B18/2017 al B20/2017.

2) Resoluciones: De la resolución nº 164 de 11 de septiembre de 2017 a la nº 180 de 27 de septiembre de 2017.

***Idazkariak hurrengo gaiari buruz azaldu du gai zerrenda egin ondotik sortu dela, eta Alkatearen Ebazpenaren bidez egin zela. Beraz, orain, ados egon ez gero zerrendatik kanpoko gai bezala tratatu behar dutela ebazpena berresteko.***

***Hori dela eta, gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa betea izanik, honako gai hau tratatu dute:***

*La Secretaria explica sobre el siguiente asunto que surgió después de hacer la convocatoria y se resolvió mediante Resolución de Alcaldía por lo que si están conformes deberá tratarse como asunto fuera del orden del día la ratificación de la Resolución adoptada.*

*Por ello, fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, se trata el siguiente asunto:*

**11.- “GOI PRESIOKO UR HORNIDURA. LESAKA-BERA KONPONBIDE BATERATUA. BATERAKO JARDUERA 1. FASEA” IZENEKO PROIEKTUAREN**

11.- RATIFICACION RESOLUCIÓN 181/2017 DEL ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE BERA POR LA QUE SE AMPLIA EL PLAZO DE FINALIZACIÓN

**OBRAK GAUZATZEKO KONTRATUA BUKATZEKO EPEA LUZATZEN DUEN 181/2017 ALKATEAREN EBAZPENA, BERRESTEA.**

DEL CONTRATO DE OBRAS PARA EJECUCIÓN DEL PROYECTO DE “ABASTECIMIENTO DE AGUA EN ALTA. SOLUCIÓN CONJUNTA LESAKA-BERA. ACTUACIONES COMUNES 1ª FASE”.

**2017ko martxoaren 23an “Goi presioko ur hornidura. Lesaka-Bera konponbide bateratua. Baterako jarduera 1. fasea” izeneko proiektuaren obrak gauzatzeko kontratua CONSTRUCCIONES MARIEZCURRENA SL enpresari esleitzea erabaki zuen Udalak eginiko Osoko bilkuran.**

En el Pleno realizado el 23 de marzo de 2017 el Ayuntamiento acordó adjudicar a la empresa CONSTRUCCIONES MARIEZCURRENA SL el contrato de obras de ejecución del Proyecto de “Abastecimiento de agua en alta. Solución conjunta Lesaka-Bera. Actuaciones comunes 1ª fase”.

**Aipatu obra hasteko akta maiatzaren 11n sinatu zen eta obra hauek bukatzeko epea 2017ko urriaren 11 arte zen (5 hilabete).**

El acta de inicio de esta obra se firmó el 11 de mayo de 2017 siendo el plazo de finalización el 11 de octubre de 2017 (5 meses).

**Construcciones Mariezcurrena sl enpresak 2017ko irailaren 25eko idatzia aurkeztu du non dioen kontratistari egozten ezin diren arrazoiengatik (hor aipatzen direnak), obra hauek bukatzeko epea luzatzea eskatu duela, 2017ko azaroaren 7 arte, hain zuzen ere.**

La empresa Contrucciones Mariezcurrena sl ha presentado un escrito de fecha 25 de septiembre de 2017 en el que indica que, por las razones en él expresadas y no imputables a la contratista, solicita una ampliación del plazo de finalización de las obras, concretamente, hasta el 7 de noviembre de 2017.

**Ikusirik, horri buruz obra honen Obra Zuzendaritzak eginiko txostena, 2017ko irailaren 27koa, non Construcciones Mariezcurrena sl enpresak eginiko eskaerari ontzat ematen dion.**

Visto el informe al respecto emitido por la Dirección de la Obra, de fecha 27 de septiembre de 2017, en el que da el Visto Bueno a la solicitud presentada por Construcciones Mariezcurrena sl.

**Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 103.4 artikulua eta bat datorrenei jarraikiz, obraren exekuzioa ez atzeratu arren, 181/2017 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez lehen aipatu den proiektua burutzeko obrak bukatzeko epea luzatu zen, 2017ko azaroaren 7 arte.**

De conformidad con el artículo 103.4 de la Ley Foral 6/2006 y concordantes, para no retrasar el desarrollo de la obra, por Resolución de Alcaldía 181/2017 se amplió el plazo de finalización de las obras de ejecución del proyecto antes indicado, hasta el 7 de noviembre de 2017.

**Horrexegatik, orain, Udalbatzak emandako epearen luzapena berretsi egin behar du.**

Por ello, ahora, procede la ratificación por el Pleno de la prórroga concedida.

**Hori dela eta, ERABAKI DUTE:**

Por todo lo anterior, SE ACUERDA:

**1) Irailaren 29ko 181/2017 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez 2017ko azaroaren 7 arte luzatutako epea berrestea. Epe hau Construcciones Mariezcurrena sl enpresak eska-**

1) Ratificar la ampliación del plazo concedido hasta el 7 de noviembre de 2017 por Resolución de Alcaldía 181/2017 de 29 de septiembre, para finalización de las obras de ejecución

**tu du, "Goi presioko ur hornidura. Lesaka-Bera konponbide bateratua. Baterako jarduera 1. fasea" izeneko proiektua gauzatzeko obrak bukatzeko.**

del Proyecto de "Abastecimiento de agua en alta. Solución conjunta Lesaka-Bera. Actuaciones comunes 1ª fase" solicitado por la empresa Construciones Mariezcurrena sl.

**2) Erabaki hau interesatuari eta Lesakako Udalari jakinaraztea.**

2) Notificar este acuerdo a la interesada y al Ayuntamiento de Lesaka.

**3) Erabaki hau Nafarroako Gobernuaren Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuaren Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiari bidaltzea, behar diren ondorioetarako.**

3) Remitir este acuerdo a la Dirección General de Administración Local del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local a los efectos oportunos.

**12.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.**

12.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

**Ez dira burutu.**

No se producen.

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 21:15etan.**

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 21:15 horas.

**O.E. ALKATEA/** V.B. EL ALCALDE
Josu Iratzoki Agirre

**IDAZKARIA/** LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta